

Aretxagazeta

Barne-Barnetik

ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA
Txabolak egiteko
ordenantza /08

ONDARE HISTORIKOA
Gela baten sartuko dute
Zubiateko labea /09

LEINTZ GATZAGA
KZgunea zabalik
herrian /10

Aretxabaleta



**HERRIA ERAKUSTEN
DUEN BIDEOA**

**ARETXABALETAREN EZAUGARRIAK, HISTORIA,
OHITURAK... GUZTIA 25 MINUTUTAN**

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 17
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

DOMEKA, 18
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

TELEFONOJAKINGARRIAK

OROKORRAK

Almen 943 71 49 07
ARETXAGAZETA 943 79 86 21
Faxa 943 77 18 54
Basotxo 943 77 09 81
Euskaltegia 943 79 21 68
Gizarte laguntzailea 943 71 18 62
Hezibide elkarteak 934 79 31 32
Industrialdea 943 79 62 80
Institutua 943 79 79 00
Kirol etxea 943 71 26 28
Kultura etxea 943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola 943 79 00 49
Kurtzebarri BHI 943 79 57 40
KZGunea 943 79 94 44
Liburutegia 943 71 18 62
Loramendi EE 943 77 09 70
Ludoteka 943 79 05 81
Mankomunitatea 943 79 30 90
Murruxiko ME 943 79 93 74
Musika Eskola 943 79 36 50
Osasun etxea 943 71 19 59
Otalora 943 71 24 06
Parrokia (bulegoa) 943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola 943 77 03 77
Postetxea 943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea 943 79 17 00
Taxi geltokia 943 77 12 64
Udal Bulegoak 943 71 18 62
Udaltzaingoa 943 71 18 63
Urats Gain 943 79 99 11

UDALTZAINGOA
Arrasate 943 79 14 39

LARRIALDIK

SOS Delak 112
Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Ertzaizntza 943 53 47 20
Gurutze Gorria 943 76 55 76
Larrialdia 943 46 11 11
Suhiltzaileak (Onati) 943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:00, 12:00
Zapatuetan: 19:30
Lanegunetan hiletak: 19:00

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Lanegunetan: 19:00

BASERRI AUZOETAN: AOZARATZA
Domekan 11:30ean.

MENDIOLA
Domekan 12:30ean.

GELLAO/IZURIETA/GALARTZA
Hile honetan ez dute izango.

OHARRAK

UDA KIROL ELKARTEAK BATZARRA

Batzarra egingo du UDA kirol elkarteak gaur, egubakoitza, 19:00etan, kultur etxeko bideo gelan.

DANTZA AFRIKARRAREN SAKONTZE IKASTAROA

Urtarrilaren 20an hasiko da ikastaroa, eta izena emateko epea zabalik dago. Aretxabaleto Azkena tabernan eta Arrasateko Totem dendan eman behar da izena. Kurtzebarri eskolan egingo dute ikastaroa, martitzetan, 20:00etatik 21:30era, martxoaren 9a arte.

JAI BATZORDERAKO DEIALDIA

Udaleko Kultura Sailak jai batzordea berri gura du. Hori horrela, herritar guztiei egiten die dei datorren eguaztenean, urtarrilak 21, 18:30ean, udaletxean ager daitezten.

PODOLOGO ZERBITZUA BASOTXON

Alex Azkarate podologoia etorriko da eguaztenean, hilak 21, Basotxora. Hitzordua aurrez hartu behar da.

TAKOLO, PIRRIKX ETA PORROTX PAILAZOAK

Urtarrilaren 24an, egubakoitza, izango dira Takolo, Pirrikx eta Porrotx pailazoak kirol etxean, 17:30ean. Sarreak Loramendi EEn, ludotekan eta kirol etxean.

LORAMENDIRENAGENDA

ARETOKO DANTZEN IKASTAROA
Urtarrilaren 14tik aurrera eguaztenero emango dituzte aretoko dantzen eskolak, 20:30etik 22:00etara. Izena emateko deitu Loramendi Euskara Elkartera.

LITERATURA LEHIAKETAKO SARI BANAKETA
Loramendi Literatura Lehiaketako sari banaketa egingo dute urtarrilaren 22an, eguena, 19:00etan, udaletxe zaharrean.

ORAINDELA 9URTEARETXABALETAN

Ramon Elkoro diakono egin zuen Setien gotzainak


Urtarrilaren 7an diakono egin zuten Ramon Elkoro Aretxabaleto parrokian. Setien gotzainak zuzendu zuen ekitaldia, Jon Molina aretxabaleto lagunduta. Kristautasunarekin lotutako lan asko egin ditu beti, eta 50 urte zituela abade izateko lehen pausoa eman zuen: diakono egin zuten.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

“Zastiau”

Akulua, sarda edo beste objektu zorrotz bat behin eta berriz sartu. —Erlia majo zastiau najok besuan.



GORKA ORTEGA

LIBURUTEGIKOTXOKOA

Liburutegiko egutegia

Aurten ere Udal Liburutegiak liburu orrialdeak markatzeko balio duen egutegia atera du.

Aurreko aldean Mikel Valverde egindako ilustrazioa dakar, eta atzetik liburutegiaren egutegia, helbidea eta ordutegia.

Egutegiak postontzietan banatuko ditugu eta Udal Liburutegian bertan ere aurkituko dituzue.



JOSEBA LOPEZ DE ARMENTIA

ZORIONAGURRAK



ARETXABALETA Miren Murillo
8an. Zorionak eta muxu handi bat! Mikel eta etxeokak.



ARETXABALETA Miren Antxia
8an, 5 urte. Zorionak eta muxu bat, etxeokoen eta lagunuen partetik.



ESKORITZA Juan Carlos Garcia eta Ana Belen Garzon
8an eta 15ean. Zorionak amaren partetik.



ARETXABALETA Oier Etxebarria
12an. Zorionak eta urte askotarako Peñitako lagunuen partetik.



ARETXABALETA Eñaut Beltran de H.
17an, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat! Alaitz, Manex eta gurasoak.



ARETXABALETA Kaiet Gonzalez
17an, 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat, lagun guztien partetik.





ARETXABALETA Malena Gonzalez
19an, 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat, lagun guztien partetik.

BABESLEA

PHOTOSYNTHESIS
argazkilaritza

35mm, APS eta digitalen errebelatuak 24 orduan. Tamaina guztiak.

Kamerak • Karnetetako argazkiak • Ezkontzak • Estudioko argazkiak
Herriko plaza 5 ARETXABALETA 943 79 79 67



EGUZKIGRAF

inprimategia


1979-2004

25. urteurrena


ATREBENTZIAEZPADA/ Basotxoko bazkide zara? Hartzen dozu parte antolaketan dittuen ekintzetan?



EUGENIO LACALLE
Jubilau




Mª KARMEN ELORZA
Jubilau



ALFONSO BERROCAL
Jubilau



MARIA VALDEZATE
Jubilau



JESUS MARTINEZ
Jubilau



LOLA ARMENTIA
Jubilau

Sortu zanetik naz Basotxo-ko bazkide. Santo Tomaseko txistorradan hartu izen dot parte, baita antolatut dituduen bidaiak batzuetan be. Ule apaindegira be hiru bider fan naz.

Aspalditik naz Basotxoko sozio, zabaldu zanetik, eta oso gustora nau. Desietan egoten naz arratsaldeko bostak aillegetako, Basotxora fan eta lagunekin kartetan jokaketan hasteko.

Bazkide naz eta egunero faten naz jubilaue etxera; neguen, gaiñera, gustora egoten da kalefaziñuaz. Ondiokan ez ditud 65 urte bete eta ezin naz bidaietara fan, baiñe tira...

Hasi zanetik naz Basotxoko sozio. Egunero faten naz kartetan jokaketan. Egixe esatiarren, ondiokan ez naz ule apaindegira fan, baiñe akaso egunen baten fango naz. Merkiaue be bada.

Bai, bazkide naz, eta bidaiak batzuk be egin ditud. Oso ondo antolaketan ditud bidaiak; jatetxe, onetara erueten gaue, gaiñera. Ni oso gustora nau, ondo atendiduten gaue-eta.

Lehen gehixautan hartzen neuen parte, oin zaharraue be banaz-eta; baiñe domeka danetan faten naz. Sei lagun juntetan gare, eta briskan ibiltten gare; diruekin, baiñe lehengo pezetekin.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK INGURU EDERRA Lanak egiten dituztenean eragozpenak sortzea ohikoa izaten da; hori bai, zenbat eta eragozpen txikiagoak, denondako hobeto. Aretxabaletako ikastola jarriko duten eraikin inguruan ez da gero inguru ederra egoten: kamioiak hara eta hona, zuloak, eta zikinkeria han eta hemen. Lanok egiten dabilzanek kontu handiagoa izan beharko lukete. / M.A.

ETABARRUAN...

UDLA /04 Ohiko osoko bilkura egin du Bi mozio eta lau gai eztabaidatu ditu udalbatzak urteko lehen ohiko osoko bilkuran.	TURISMOA /05 Herriari buruzko bideoa Aretxabaletari buruzko bideoa ateratu du udalak. 1.500 kopia kaleratu ditu, eta salgai daude.	KIROLAK /06 Xake denboraldia hasi da Arlutz Xake Taldeak denboraldia hasi du. Euskal Ligan jokatu du aurtan taldeak.
--	--	--

ASTEKODATUA

1.500

BIDEO JARRI DITU SALGAI ASTE HONETAN UDALAK

Aretxabaletari buruzko bideoak ateratu ditu Udaleko Kultura sailak, batzuk euskaraz eta beste batzuk gazteleraz. Ludotekan, kultura etxean eta kirol etxean daude salgai, sei eurotan.

BESTEKEESANA

“ Nik duela 35 urte eman nuen odola lehenbiziko aldiz. Orduan jende gutxiagok ematen genuen odola. Agian beharra ere txikiagoa izango zen, baina gutxiago ginen odol emaleak.

Garbi daukat oso beharrezkoa dela odola ematea. Gainera eskaera handia dago. Odola ez da fabrikatzen den gauza bat eta beti izan behar da gertu behar duenak hartzeko, bai ebakuntza egin diotelako edo bai istripu bat izan duelako. Gainera, kontutan izan behar da, organo transplanteetan ere odol asko behar izaten dela, gutxi gora behera 20 litro transplante bakoitzean, eta hori 40 emaleen odola da. Dugun odolaren %7 baino ez da ematen aldiro, eta berehala errekupepatzen zara.

RAMON ERAÑA
Arrasate Irratia/04-01-13

HERRITARRENBERBAK/ Resu Abasolo



Desio onak

Urtarrilak, abenduaren ondoan egon arren, badauka bere ezaugarrien artean asmoak, intentzioak, ilusioak, proposamenak... egiteko une edo aukera egokia izatearen doia. Nik egoki deritzot, urtearen hasiera aprobetxatuz egunero-kotasunetik ateratu eta urrutzea gero errealitateko ogi gogorrari agin zorrotzez heltzeko.

Aretxagazetako urtekaria irakurtzean 2003ko iritziek zer pentsa eman zidaten. Alde batetik norbanakoen iritzi pertsonalak oso pozgarriak ziren baina ez ordea gizartegintzan arduraren bat dutenenak. Hala: “jende falta”, “gazteen inplikazio eza”, “gero eta bazkide gutxiago”, “hau hemen bukatuko da”... ziren sarri errepikatzen ziren esaldiak.

Ez dezagun ahaztu herriari bizitza ematen dioten zinegotziak, UDAkoak, ARATZekoak, LORAMENDIkoak... edozein elkarteetako boluntario guztiak gure artetik irteten direla eta

gure ispilu direla. Horregatik saiatu beharko genuke guztiok gizartegintza prestigiatzen, horretara jenderik egokiena bidaratu eta gure herriaren nortasuna zainduz eta aberastuz.

Noiz izan dugu gure herrian hainbeste jakitun, lizentziatu, masterdun eta doktore: humanitateetan, antolaketan, ingurugiroan, teknologia berrietan...?

Noiz izan dugu gure herriko gizartegintzan esperimintatuz norberaren curriculum egiteko aukera ederragorik?

- UDAk aurrera egiteko formula erosoak eta egokiak bilatuko dituenik?

- Herriarri iritziak sistematikoki jasotzen eta kontuan izateko estrategiak martxan jarriko duenik?

- Boluntarioekin osatutako edozein elkartetan plangintza estrategikoak egingo dituenik?

Imajinatzen al duzue gizartegintzako curriculum masterrak eta doktoradutzak bezala baloratuko den eguna? Urte berri on guztiok.

“Noiz izan dugu gure herriko gizartegintzan esperimintatuz norberaren curriculum egiteko aukera ederragorik?”

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
3.800 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

Zein ote da?

Urtarrillien barruraino sartute gaz, dagoeneko, baiña neuri behintzet, oso gogorra egin jat lanerako bueltie. Opor luziek euki nittuelako, akaso.

Hasteko neska baten izena aittetu gureko nuke, Larraitx Antxiana hain zuzen. Izen be, Arrasaten egin euien eskalada txapelketako txapeldune izen zan nesken artien. Ez dago txarto. Arlutz Xake Taldie be edarto ibilli zan Santamasetako Xake Bizkorreko Txapelketan txapeldun izan zan-eta. Arlutz taldien jokaketan dauen Fran Miguel, ostera, Gipuzkoako Txapelketan bigarren geratu zan. Xake talde bakarra daukogu herrixen, baiña ez nolanhikue.

Beñat Etxabe be kiolarixe da, eta Realarekin jokaketan dau infantil mailan. Joan zan zapatuen, gaiñera, infantil txikiko taldiei omenaldixe egin eutsen Realeko talde nagusixek. Arrazoei Kanariar Irletako Maspalomas herrixen jokatu euien txapelketan edarto ibilli ziela; hirugarren geratu zien, gaiñera. Beñatekin batera, Donostian bizi dan aretxabaletar baten semiek be jokaketan dau Julen Etxabeguren da bera. Hortaz, ez da bakarrik sentiduko Beñat Donostia aldien.

Besteik ez, animo eta urtarrille be fango da.

OSOKO BILKURA / Herritarrei planaren inguruko gestio guztien berri emateko konpromisoa hartu zuen Udalak

Lurralde Zatiako Planaren gaineko mozioa onartu zuten asteleheneko osoko bilkuran

MIRARI ALTUBE

Astelehenean egin zuen udalbatzak urteko lehenengo osoko bilkura, eta PSE/EEko zinegotzia izan ezik gainerako guztiak elkartu ziren. Mozio bi eztabaidatu zituzten lehenengo, eta lau gairen gaineko erabakia hartu zuten gero; azken horiek aho batez onartu zituzten.

Mozio bi aurkeztuta hasi zuten ohiko osoko bilkura, eta horren ostean, lau gai erabaki zituzten. Galdera eta eskarien atalean udal aurrekontua izan zuten hizpide.

MOZIOEN GAINEKO EZTABAIDA

Euskal presoaren egoeraren gaineko mozioa aurkeztu zuen Gobernu batzordeak. Silvia Camporro PPko zinegotzia ez zen bat etorri mozioan esandakoarekin: Euskal Herritik kanpora bizi izatera joan behar izan dutenak eta ETAK hildakoak ere kontuan hartzeko eskatu zuen. Horren harira, giza eskubide guztien aldeko mozioa aurkeztuta konprometitu zen alkatea.

Bigarren mozioa Lurralde Zatiako Planaren gainekoa izan zen. Udalak gestioen berri emateko konpromisoa hartu zuen, eta herritarrek eztabaidatzeko eta parte hartzeko aukera izan dezaten gura dute. Arritxu Olidenek adierazi zuen ibarreko alkate batzuk Sabin Intxaurrega sailburuarekin batzartu direla, eta hark esan zuela herritarren iritzia kontuan hartuko dituztela.



Mozioak izan ezik, gainerako gai guztiak aho batez onartu zituzten udalbatzako kideek asteleheneko ohiko osoko bilkuran.

SANEAMENDU LANAK

Gainerako gaiei dagokienez, saneamendu eta hornikuntza plan bereziaren gainekoa izan zen garrantzitsua. Zaraia eta Aralar kaleetan egingo dituzte lanak, eta Amenabar eraikuntza enpresa

aukeratu dute. Bost hilabete izango ditu horretarako, eta ia 800 mila euroko aurrekontua.

Bukatzeke, udal aurrekontua aipatu zuten. Ogasun Sailak zirriborroa eman zien zinegotziei, eta astebete izango dute iradokizu-

nak aurkezteko. Aralar alderdiko Xabier Sarasua ez zen guztiz bat etorri; lau urtera begirako aurrekontu adostua egitearen alde azaldu zen hura. Hala, alkateak ziurtatu egin zion Xabierri horrela izango dela hurrengoan.

LABUR

Jai batzordea sortzeko lehen bilera egingo dute urtarrilaren 21ean, eguaztenean

Datorren eguaztenean, urtarrilaren 21ean, egingo dute urtero osatzen den Jai batzordea sortzeko lehen bilera. Datozen bilera guztiak ere eguaztenero egingo dituzte, 18:30ean, udaletxean.

Bilera horrekin, Jai batzordean ahalik eta jende gehien bil-

du nahi dute, jaiak denen artean eta denen gustura antolatzeko. Laster Aratusteak datoz, eta jai horietako egitaraua prestatzen hasiko da batzordea lehenbizi. Andramaixak eta gainontzeko jaietan pentsatzen ere berehala hasiko da Jai batzordea.

Zezenak adarka egin zion emakume bati

Zezen baten adarkada jaso zuen emakume batek. Urkulun gertatu zen ezbeharra, baina zorionez ez zen larria izan. Dirudieenez solte zebiltzan zezenetako bat gehiegi hurbildu zen urtegira eta Arrasateko emakume bati egin zion adarka.

Pagaldai Pentsuek, erakusleho dotorena

Pagaldai Pentsuek dendak jaso du Gabonetako Erakusleho Lehiaketako lehenengo saria. Oroigarria eta 210 euro jaso ditu. Bigarrena Zubia oinetako dendak eskuratu du, 150 euroko saria. Eta hirugarrena, Zare opari eta arropa dendak, 100 euro.

BEIRALAN




KRISTALDEGIA

Laster denda berritua!

Herriko plaza 8, behea • Aretxabaleta • 943 79 81 78 / 670 997 274

Markoztatzea

ANDRA
MARI

Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea 3
ARETXABALETA
Tel. 943 79 29 26

Bere bezeroen
zerbitzura

Mitarte 16
Tel.: 943 79 01 72
ARETXABALETA

GARBITU S. KOOP

Garbiketa
orokorrak

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28

TURISMOA/ Astelehenean aurkeztu zuten, eta dagoeneko salgai dago sei euroren truke

Aretxabaletaren gaineko bideoa egin dute, herriaren berri emateko

MIRARI ALTUBE

Aretxabaletaren gaineko bideoa aurkeztu zuen Udalak astelehenean. Kanpoan gure herriaren berri ematea du helburu bideo horrek, eta herriaren bizimodua eta historia jaso dituzte: jaiak, ohiturak, industria, auzoak, eraikin esanguratsuenak...

Astelehenean Aretxabaletaren gaineko bideoa aurkeztu zuen Udalak. 25 minutuko bideoan, Aretxabaletako bizimoduaren eta historiaren berri jaso dute.

B-30 PRODUKZIOAK

Aurreko agintaldiko udalbatzak izan zuen bideoa egiteko burutazioa; hala, Bizkaiko B-30 Produktzioak enpresari agindu zion. Azken bi urteotan grabaketa lanak egiten ibili dira, eta irudi guztiak muntatu ostean, herri-tarrion eskuetan dago emaitza.

Barne barnetik sailaren barruan sartu dute Aretxabaletaren gaineko bideoa. Euskal Herriko hainbat herritan egin dituzte grabaketa lanak B-30 enpresako kideek, eta, aurrera begira, bilduma egiteko asmoa daukate.

HERRIKO KONTU GARRANTZITSUENAK

Bideoaren helburua kanpotarrei herriaren berri ematea da, hau da, Aretxabaleta ezagutaraztea. Bideo emanaldia ez da luzea, 25 minutu irauten du, baina kontu ugari batu dituzte. Lehenengo



Alkateak eta B-30 Produktzioak enpresako arduradunak aurkeztu zuten bideoa.

zatian, ezaugarri orokorrak aipatzen dituzte: non dagoen kokatuta, zein ezaugarri dituen, zein bizimodu mota egiten dugun herritarrok, industria...

Bigarren zatian, historia jaso dute; familien arteko guduak eta ondorioz geratu zaizkigun eraikinak, baita Eskoriatza eta Aretxabaleta banandu zirenekoa ere.

Herrian bertan eta auzoetan ditugun eliza, ermita eta eraikin garrantzitsuenen berri ematen digute. Azken partean, berriz, herriko jaiak eta ohiturak jaso dituzte: Santa Ageda batzen, Aratusteak, San Juan bezpera, Andramaixak, San Migel jaiak...

Bideoa kultura etxean, kirol etxean eta ludotekan dago salgai.

ERRETIRATUAK/ Ile apaindegia daukate bazkideendako

Basotxo elkarteak podologo zerbitzua jarriko du abian

M.A.

Basotxo elkarteak daukate herriko erretiratuek topaleku. Bidaia, zozketak, hitzaldiak eta beste hainbat ekintza antolatzen dituzte. Orain hilabete batzuk ile apaindegia jarri zuten abian, eta datorren astetik aurrera podologo etorriko zaie eguenetan.

Ez daude geldi gure herriko erretiratuek. Basotxo Elkarteak dute elkartzeko leku izendatuta, eta bertatik antolatzen dituzte bai hitzaldiak, bai bidaia, bai beste era bateko zerbitzuak.

HILEAN BEHIN PODOLOGOA

Azken urteotan ile apaindegi eske ibili da Basotxo elkarteak batzordea. Iaz gela txiki bat egokitu eta azaroan jarri zuten abian aipa-

tutako ile apaindegia. Eva Valor eskoriatzarra da ile-apaintzailea, eta egunero jarduten du bertan, arratsalde partean. Aurrez telefonoz deitzea komeni da, hortaz, hona zenbakia: 645 70 63 76.

Orain, ostera, podologia zerbitzua jarriko dute. Datorren eguaztenean hasi (urtarrilak 21), eta hileko hirugarren eguaztenean joango da Alex Azkarate podologo arrasatearra, hanketako kailu eta gogorruneak biguntzera. Kasu honetan ere aurrez eskatu behar da hitzordua Basotxo elkartearen bertan, 11:00etatik 12:00etara bitartean. 9,50 euro ordaindu beharko da zerbitzua.

Aipatutako zerbitzu biak erabiltzeko elkarteak bazkide izan behar dela gogorarazi gura dute batzordeko kideek. Hortaz, erretiratuek anima daitezela eta elkartearen izena eman.



Eva Valor ile apaintzaileak arratsaldeetan dihardu Basotxo erretiratuen elkartearen.

TXUTXU-MUTXUA



Infantil txiki taldeko kideei, tartean Beñat Etxaberi, omenaldia

Beñat Etxabe aretxabaletar gaztetxoak Realeko infantil mailako taldearekin jokatzen dabil azken urtean. Infantil txikien taldeak Kanariar Uharteetan txapelketa jokatu berri du, Maspalomasen hain zuzen. Oso txapelketa ona egin zuen eta hirugarren postuan geratu ziren. Hori horrela, Realeko talde nagusiak omenaldia egin zien zapatuan Real Madrilekin partida jokatu aurretik.

Argazkia, ostera, Maspalomasen atera zuten eta Beñaten eskuma aldean dagoena Julen Etxabeguren da, Donostian bizi den aretxabaletar baten semea. /M.A.

LABUR

Loramendi literatura lehiaketako sari banaketa, eguenean

Datorren eguenean, urtarrilak 22, XV. Loramendi Literatura Lehiaketako sari banaketa egingo dute, 19:00etan, udaletxe zaharrean. Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleek lanak sarituko dituzte.

Bi astelehenetan odola emateko aukera izango dute

Arabako Odol Bankuko arduradunak odol ateratzeko egiten dabilza herrian. Astelehenean egon ziren osasun etxean eta hurrengo bi astelehenetan, urtarrilaren 19an eta 26an, ere etorriko dira. Odola eman gura dutenek 16:15etik 20:00etara bitartean osasun etxera hurreratu besterik ez dute; 100 bat lagun izatea espero dute arduradunek.



Arlutz Xake Taldeko kideek Euskal Ligan jokatu dute aurten, eta mailari eustea izango da euren helburua.

XAKEA

Talde indartsuak izango ditu aurrez aurre Arlutz Xake Taldeak aurten

Fran Migel taldekidea bigarren postuan geratu zen Gipuzkoako Xake Txapelketan

MIRARI ALTUBE

Joan zen astean hasi zuen denboraldia Arlutz Xake Taldeak. Euskal Ligan jokatu du aurten; izan ere, iaz, denboraldi bikaina egin eta mailaz igo zen. Aurkari indartsuak izango ditu. Joan zen astean, Donostiako Gros taldea izan zuen aurrez aurre.

Denboraldia hasi berri du Arlutz Xake taldeak, Euskal Ligan hasi ere. Joan zen astean, Gros talde indartsuaren kontra jokatu zuen, eta aste honetan Erretereriako taldea izango du aurkari.

EUSKAL LIGA

Aurten, Euskal Ligan jokatu dute Arlutz Xake Taldeko kideek: Andoni eta Fran Miguel, Aitor Alcaide, Esteban Romero eta Joseba Altubek. Iaz, denboraldi bikaina egin zuten eta mailaz igo ziren. Orain dela urte bi ere Euskal

Ligan jokatu zuten, baina oso talde indartsuak izan zituzten aurrez aurre, eta mailaz jaitsi ziren.

Abenduaren 10ean jokatu zuten lehenengo partida Donostian: "Gros taldea oso indartsua da, ligako talde indartsuena izango da, seguru asko. 4-0 galdu genuen, baina geuk ere espero genuen halakorik", dio Aitor Alcaide taldekidea. Bihar, zapatua, berriz, Erretereriako taldea izango dute aurrez aurre. Oraingoan, etxean jokatu dute, 16:00etan hasita, eta emaitza hobea lortu gurako lukete.

SANTAMAS TXAPELKETAKO GARAILEAK

Urte berriarekin batera hasi dute liga, baina Gabonetan ere lanean ibili ziren herriko xake jokalariak. Arrasateko Santamasetako xake bizkorreko txapelketan hartu zuten parte beste 14 taldeekin batera; ez bakarrik parte hartu, txapelkunak izan ziren. "Azken partida oso gogorra izan

zen, baina azkenean geu nagusitu ginen", dio Aitorrek. Bigarren Erretereriako taldea geratu zen eta hirugarren Kataluniatik etorritakoak.

Gabonetan Gipuzkoako Xake Txapelketa ere jokatu zuten Arrasaten. Ez zuten Arlutz taldeko guztiek parte hartu: Fran, Aitor eta Esteban joan ziren. Guztira 19 lagun ibili ziren nor baino nor gehiago: "Ez ginen asko izan, baina maila handia egon zen. Franek oso ondo jokatu zuen, eta Estebanek eta biok geure mailan jardun genuen". Hori horrela, Fran Miguel bigarren geratu zen Luis Olaizola donostiarraren atzetik, 11.a izan zen Aitor eta 13.a Esteban.

Martxoan bukatuko dute hasi berri duten denboraldia, eta mailari eustea da euren helburua. Batzuek esango dute asmo apala dela, baina aurkarien berri jakin besterik ez dago, batzuk profesionalak dira-eta.

FUTBOLA

Batzarra egingo du UDA kirol elkarteak gaur, batzordea osatzeko kide berriak aukeratzeko

Gaur, egubakoitza, batzarra egingo du UDA kirol elkarteak. Ekainean egin zuten batzar orokorrean, batzordeko kideek iragarri zuten Gabonak arte bakarrik jarraituko zutela. Orain, Gabonak pasatu eta gero, batzordea berritzeko bigarren ahalegina egin gura dute; hortaz, UDAko bazkideek eta jarraitzaileek hitzordu garrantzitsua dute gaur, 19:00etan, kultura etxeko bideo gelan.

FOTOKIROLA



Peña Zubi txapelketan 18 talde ibili dira

Gabonetan urtero antolatu ohi dute Peña Zubi futbol txapelketa. Aurten, 18 talde hartu dute parte. Aretxabaletako mutilez gain, eskoriatzarrak, arrasatearrak, aramaiarrak eta bergararrak ere ibili dira, eta giro ezin hobea sortu dute Ibarra futbol zelaian. Andoni Zubizarreta joan zitzaizen sariak ematera. 11 eta 12 urte artekoen artean txapelketa Arrasateko Okorotegi taldea izan zen; 10 urtekoen artean, Joma, hori ere arrasatearra; eta 9 urtekoen artean, Bergarako Madura taldea. / M.A.

PARTIDUAK

FUTBOLA

UDA-Real Union
Preferentea.

Domeka. 16:30. Ibarra.

UDA-Eibartarrak

Lehenengo mailako gazteak.

Zapatua. 16:00. Ibarra.

PILOTA

Aretxab.-Beloki

Gazteak.

Aretxab.-Alde Zaharra

Hirugarren mailako seniorrak.

Zapatua. 17:00. Itugorri.

EMAITZAK

FUTBOLA

UDA 2 Hondarribia 0
Preferentea.

A. Ondarroa 3 UDA 0

Ohorezko gazteak.

UDA 3 Billabona 1

Lehenengo mailako gazteak.

Allerru 0 Almen/UDA 1

Lehenengo mailako kadeteak.

UDA 17 Aizkorri 0

Ohorezko infantilak.

Almen/UDA 4 Zumaia 5

F-8 emakumeak.

PILOTA

Udaberri Txapelketa hasiko dira jokatzeko Aretxabaletako jokalariak, bihar, zapatua, 17:00etan aurrera Iturrigorri frontoian. Lau partidu egongo dira.

ARQUERO
CONSTRULAN S.L.

ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tel.: 943 79 01 51
Basabe Poligonoa 4, EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:
Lyonel Arquero

Dekorazioa:
Soraya Arquero

Angelines
AUTOZERBITZUA

Frutan eta txarkuterian espezialitatea

Mitarte 16 • 943 79 61 42
ARETXABALETA

IRIARTE

Umeen denda
Helduen lentzeria

Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA

Mobiliario ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

ARETXABALETARRAKMUNDUAN

IRAIA ARABAOLAZA

25 URTE / IKASLEA / BRADFORD (INGALATERRA)

“Pakistandarrek eta hinduek paisaia berezia sortzen dute Bradforden”

MIRARI ALTUBE

Irailean joan zen Iraia Ingalaterrako Bradford hirira. Historia ikasketak egin zituen, eta orain, arkeologiaren gaineko masterra egiten dabil. Etxetik kanpora bizi izaten ohituta dago Iraia; izan ere, historia ikasketak Italiako Bolona hirian bukatu zituen, eta ondoren Dublinden urte eta erdi egon zen arkeologia lanak egiten. “Harrituta geratu nintzen Bradfordera ailegatzera: pakistandar eta hindu ugari bizi dira bertan, eta paisaia berezia sortzen dute”, dio Iraiak.

Unibertsitatea dauka aipatutako Ingalaterrako hiriak, eta horrek ikasle mugimendu handia dagoela esan gura du: “Unibertsitatedun hirietan lehen ere bizi izandakoa naiz, baina Bradforden kultura nahasketa handia dago, izugarria esango nuke. Orain aste batzuk ikasleen festa baten egon nintzen eta nork bere herriko jakiren bat eraman behar genuen. Japoniarak, Sudango eta Zaireko ikasleak, Indiakoak, Barbados uhartera eta koak...

zeintzuk ez ginen elkartu! Sarritan ez da batere samurra bertako ingeles bat aurkitzea”.

Gustura dago Iraia Ingalaterran: “Bradford ez da hiri handia eta ikasleondako mer-

“Amonak txerria hil zuela esan zidan amak, eta saihetsa jateko gogoz nengoen”

kea; hortaz, bizi izateko modukoa, baina batzuetan aspergarria bihurtzen da. Okerrena eguraldia da; neguan, gainera, segituan iluntzen du eta horrek tristura sortzen du”. Etxekoak eta betiko lagunak sumatzen ditu faltan kanpoan dagoenean.

Hori horrela, etxean egon da egun batzuetan: “Amonak txerria hil zuela esan zidan amak, eta txerri saihetsa jateko gogoz nengoen”.

Dagoeneko itzuli da Ingalaterrara Iraia. Udan izango dugu berriz ikusteko aukera.



HURRETIK



Oihana Elorza

Kazetarixe

Urte barrixekin kazetari barrixe daukugu ARETXAGAZETAn. Telebisiñoko lana alde batera itxi eta Amagoia Lasagabasterrek egindeko hutsunie beteko dusku Oñatiko kazetarixek.

Ezaguketan dozu Aretxabaleta?

Oso gutxi; oin hasiko naz ezaguketan.

Zein izengo da zure lana?

ARETXAGAZETArako kazetari lanak egingo ditut.

Telebisiñuekin lotu zaugu beti; lelen-go ETBn, gero GOITBn. Ez da hala?

Bai. Zazpi urte egin ditut ETBn: bi albistegietan eta bost Bertatik Bertara-n. GOITBn, barriz, hiru hillebete.

Prentsak daukon lan egitteko modue eta telebisiñokue oso diferentiek die?

Ointxe jakingo dot, prentsan ez dot sekule lanik egin-eta; kolaborau bai baiñe lanik ez.

Bertatik Bertara programan jente asko ezagutuko zeuen. Baten batek egin eutzun aparteko zirrararik?

Ez, ni ez naiz akordetan; baiñe danak akordetan die sagardotegiko kupel baten sartu nintzenekuekin.

Zer dituzu gurau, euskara batue ala tokiko euskalkiek?

Lana batuen egin dot, baiñe berba eta aurreko lan danak euskalkixen.

Emakumezko kazetarixe izenda, zailtasunik izen dozu lan egitteko orduen?

Ez, bapez.

Zeuri zein eratako barrixek gustetan jatzu emutie?

Gizarte eta kultura arloko herri notiziak gustetan jat; jentiek hartu-emune eukittie gustetan jat.

Ze zaletasun dituzu?

Punto kruza egiten dot asko, eta oin, patchwork-a ezaguketan hasi naz.

Telebisiñue asko ikusten dozu?

Bai, baiñe zapping asko egitten dot.

M.A.

NIREBIDAIAHURA / Ibon Agirre

Argentina / 2003ko urria

Distantziak handiak dira Argentinan, eta hegazkin asko hartu zituzten Ibonek eta emazteak egun gutxitan. “Argentinan asko dago ikusteko, eta egin genituen hiru asteak ondo aprobetxatu nahi genituen”, dio Ibonek. Horretarako iratzargailua jarri behar izan zuten ia goizero, “baina merezi zuen, benetan; bazter politikak daude han”.


Lehenengo bi egunak Buenos Airesen egin zituzten eta handik Calafatera joan ziren, glaziarrek ikustera. “Bi glaziarretan egon ginen gu. Askok gustatu zitzaizkidan. Ikaragarri handiak dira, ikusgarriak. Gehien gustatu zaidan txokoa izan da”.

Glaziarretan argazkiak atera eta Peninsula Valdes alde-ra joan ziren. “Han, baleak, pinguinoak eta bestelakoak daude. Antolatutako bidaia baten eman genuen izena eta itsasontzian sartu eta baleak ikustera joan ginen”. Eta zor-tea izan zuten. “Bai, batzuk baleak ikusi gabe bueltatzen dira, baina guk ikusi genituen, ondotik gainera”.

Usuhaiara jaitsi ziren gero, gizakia bizi den hegoaldeen dagoen puntura. “Uhartea erdia Argentinakoa da eta beste erdia Txilekoa. Historia interesgarria du Usuhaiak, eta paisaia ederrak. Antartidara espedizioak irteten dira hemendik”.

Hiriburura bueltatu ziren berriro, eta handik Villamariara, eta Euskal Jaiak nola-koak diren ikusi zuten han. Iguazun ere egon ziren, hango ur-jausiak ikusten. “Ikusgarriak dira, eta zarata handia ateratzen dute”.

Sasoi onean joan ziren Argentinara, hemen udazkena eta han udaberria zenean. “Guretzako merke dago, eta oraintxe da hara joateko unea”. Tangoa dantzatu gabe eta argazki mordo batekin bueltatu ziren etxera.



“Guretzako merke dago Argentina. Orain da hara joateko unea”

“Calafateko glaziar erraldoiak ikusgarriak dira”

OIHANA ELORZA




Han negua denean, itxita egoten dira glaziarrek.



FERRETERIA • BRICOLAGE
INDUSTRIA HORNIDURAK

Mitarte 23 / ARETXABALETA
Tel.: 943 79 96 66 / Faxes: 943 77 10 33
urkulu@cadena88.com



LURRINDEGIA
OPARI DENDA

Mitarte 18 • 943 79 38 59
ARETXABALETA

Iber

- ★ Loteria ★
- ✿ Paper denda ✿
- * Liburuak *

Otalora 2.
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

JAR EZAZU
HEMEN
ZURE
PUBLIZITATEA

Aretxagazeta

Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2004ko urtarrilaren 16a / 152. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxe: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Txabolak egiteko arauak jasotzen dituen ordenantza egin du Eskoriatzako Udalak

AINTZANE GARDOKI

Abenduaren 29an egindako osoko bilkuran, txabolak egiteko arauak jasotzen dituen ordenantzaren hasierako onarpena egin zuen Eskoriatzako udalbatzak. Ordenantza jendaurrean dago, herritarrek ordenantza aztertu eta gura dutenek iradokizunak egiteko.

Lehen ere bazituen Udalak arauak, baina lehendik zeuden hiru puntu zehaztu gura izan dituzte arduradunek: txabolaren gehieneko neurriak zehaztu, eskaera egiteko prozedura jaso eta isunak jartzeko arauak sartu.

Txabola bat egin gura duenak, asko jota, 15 metro koadrokoa egin ahal izango du aurrerantzean. "Txabolaren kanpoko azalera, eta ez barrukoak, izan behar du gehienez 15 metro koadro. Izan ere, lehen, barruko azalera izan zitekeen 15 metro koadrokoa. Orain, berriz, ez", esan digu alkate Juan Carlos Bengoak. Nekazaritza lanetarako bakarrik erabiliko den txabola egin ahal izateko gutxienez 500 metro koadroko lursaila izan behar du interesatuak.



Azkeneko bi urteotan, hamar txabola egiteko baimenak eman ditu Eskoriatzako Udalak.

Eskaera egiteko prozedura ere jaso du ordenantza horrek. "Udaletxean eskaera egiteko ekarri beharreko dokumentazioa zehaztu dugu. Aparejadore baten

lana beharrezkoa izango da". Eta gauzak ondo egin ezean, isunak jartzeko arauak zehaztu ditu herriko udalbatzak.

Hala, ordenantza hori osoko

bilkuran onartu ostean, jendaurrean jarri dute udaletxeko bulego nagusian, herritarrek azter dezaten eta gura duenak iradokizunak egin ditzan.

Txabolak egiteko arauak jasotzen dituen ordenantzaren hasierako onarpena egin du Udalak

Txabola bat egin gura duenak, asko jota, 15 metro koadrokoa egin ahal izango du

Ordenantza jendaurrean dago, gura duenak iradokizunak egin ditzan



Garbi-garbi egin eta gero, zabalik dago igerilekua

Urtarrilaren 1etik 7ra bitartean itxita egon da igerilekua. Aurreko urteetan bezala, aurreko Gabonetako jolasparkea itxi eta gero, igerilekua eta beheko solairuko zerbitzu guztiak garbitu dituzte. Igerilekuko ur guztia hustu zuten -500.000 litro- eta presiozko makina handiekin igerilekua bera eta igerilekuaren ertzak garbitu zituzten. Saunak eta beheko aldagelak ere garbitu dituzte. Gogora ezazue, bestetik, kiroldegiko txartelak berriztatzeke garaia dela. Beraz, interesatuok, adi!

LABUR

Juan Carlos Bengoak izan zen GOITBko 'Herriz herri' saioan

Eguaztenez, Eskoriatzako alkate Juan Carlos Bengoak izan zen *Herriz herri* saioan. Alberto Gorritibereak zuzentzen duen saioan makinatxo bat kontu kontatu zituen alkateak. Horrez gain, musearen gaineko bideoa eta Joserra Zubizarretari egindako elkarrizketa ikusi ziren saioan. Herritarrek galdera ugari luzatu zioten alkateari eta eskaeraren bat edo beste ere jaso zituen Bengoak. Ikusteko aukerarik izan ez zenuenok, asteburuan, bazkal ondoren, izango duzue aukera.

TELEFONOJAKINGARRIAK

ESKORIATZA

Udaletxea.....	943 71 44 07
Udal bulegoak.....	943 71 45 32
Udaltzaingoa.....	943 71 44 07
Euskaltzia.....	943 79 21 68
Kultura etxea.....	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea.....	943 71 31 36
Kirol etxea.....	943 71 53 28
Liburutegia.....	943 71 31 35
Luis Eceiza.....	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola.....	943 71 44 86
Almen.....	943 71 49 07
Museo Eskola.....	943 71 54 53
Axtroki.....	943 71 40 77
HUHEZI.....	943 71 41 57
Osakidetza.....	943 71 44 52
Telesko.....	943 71 49 17
Taxiak.....	943 71 40 59

BESTELAKOAK

Eskualde ospitalea (Arrasate).....	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara).....	943 76 55 76
Ertzaizntza (Arrasate).....	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati).....	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga).....	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz).....	945 23 20 30
PESA (Arrasate).....	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate).....	943 77 10 43
SOS Deiak.....	112

OHARRAK

MANKOMUNITATEAREN OHARRA

Otsailaren lehengo astetik aurrera, traste handien bilketa astero-astero egingo dute Mankomunitateko langileek. Eskoriatzan eguenero atera ahal izango dira trasteak ohiko lekuetara, 20:00etatik 22:00etara. Dena dela, trasteak atera gura duenak horren berri eman beharko du 943 71 19 38 zenbakian.

HITZALDIA

Neguan sasoian egoteko aholkuak hitzaldia egingo du Mari Jose Pagaldaik hilaren 21ean, 19:00etan, kultur etxean.

AXTOKIRENAGENDA

'ASTELEHENEKO GOIENKARIA'

Otsailean kaleratzen hasiko den *Asteleheneko Goiienkaria*-ren harpidedun izan gura duenak 902 36 38 51 edo 943 79 21 00 zenbakira deitu beharko du.

ZUBIATE LABEA ERABERRITU EGINGO DUTE

Gela baten sartuko dute Zubiata labea, etxeak egiten dituztenean

OIHANA ELORZA

Hilabete barru hasiko dira Zubiata labearen inguruko etxeak egiten. 40 etxebizitza egingo dituzte eta garajeak bi solairutan. Zubiata labea bera eraberritu egingo dute eta 200 metro koadroko lokal baten sartuko dute, hura ikusi nahi duenak bisita dezan.

Gaztañadui etxebizitza-sustatzaileak konpromisoa hartu dute Zubiata labea lokal baten sartzeko. Labea bera Udalarena da, eta honek hitzarmena sinatu du eraikuntza enpresarekin. Lehenbizi, ordea, eraberritu egin behar da. Labea eta ingurua zaharberritu eta konpondu egingo dute eta gero lokal batean sartu. 120.000 euro inguru zehaztu dituzte lan horretarako.


Labearen inguruan 40 etxebizitza egingo dituzte bi ataritan, eta azpian garajeak bi solairutan. Zubiata labeak zazpi metroko altuera du, eta etxebizitzaren behealdean eta garajearen lehen solairuaren artean egingo duten

Labea eraberritu egingo dute, eta horma batek orduko lantegia irudikatuko du

lokalean sartuko dute.

Eskoriatzakoarekin batera labe gehiago ere baziren inguruan XIX. mendean; Oñatin, esaterako. Baina egun erabat hondatuta daude denak. Bizkaiko Apatan, esaterako, sasi artean ezkutatuta egon da oraintxe arte, eta azkenaldian, ingurua txukuntzen eta labea aztertzen hasi dira. Arabako Elosu herrian dagoena ere oso hondatuta dago. Zubiata labea, aldiz, oso-osorik dago, eta hori da daukan garrantzitsuena. Osorik dagoen labe bakarra da Euskal Herrian.

Lantegi hark bi solairu zituen; izan ere, labeaz gain tailerra eta biltegia ere bazituen. Eraberritze



Hilabete barru hasiko dituzte lanak Gaztañaduin. Olanak estaltzen du labe zaharra.

lanekin batera eraikin haren kopia egin nahi dute. Horma batek irudikatuko du garai hartako zeramika lantegia. Han zeuden atek ere gordeta dituzte, eta dena

batera jarriko dute. Horrez gain, erakusketa bat egingo dute, lantegi hartan eta inguruko herrietakoetan egiten ziren zeramikekin.

TXUTXUMUTXUA



Erakusleiho dotore ugari Gabonetan

Gabonetako oporrak aspaldi joan zirela badirudi ere, guk tartetxo bat eskaini gura izan diegu Gabon jaiei. Olentzero, urtero moduan, primeran portatu zen herriko ume eta ez hain umeekin. Jolasparkean jolas egiteko aukera polita izan zuten txikienek. Hiru egunean 400 ume ibili ziren jolasean jolasparkean. Eta herriko dendak dotore apainduta izan zituzten dendariak; Zubia harategiak irabazi du aurtengo erakusleiho lehiaketa.

LABUR

Eguzki-plaka gehiago jarri dituzte kiroldegian

Energia garbi eta berritzailearen aldeko apustua egin gura du Eskoriatzako Udalak. Udazkenean hasi ziren kiroldegian eguzki-plakak jartzen, eta egunotan gehiago jartzen ari dira. Bi instalazio mota jarri dituzte: bata, kiroldegiko ura berotzeko erabiliko da eta bestea, argindarra sortzeko. Kiroldegia dituen beharrak asetzeko beste energia ez da plakin lortuko, baina Udalak ekimen horrekin herritarrei eredia eman gura die. 120 mila euroko aurrekontua du.

EDURNE
ESTETIKA ZENTROA



Ile gehiegi eta gainera ile bihurria? Depil Plus sistemarekin zure arazoa ordutan konponduko dugu...

Villar
Ile apaindegia

Olazar auzoa 9
Tel.: 943 71 50 42
ESKORIATZA



Aranburuzabala 22, behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 51 20

SEI ORDENAGAILU HERRITARREN ESKURA

Joan den astea ezkerro zabalik dago KZgune berria, Gatzagako Garro jauregian

AINTZANE GARDOKI

Urtearen hasierarekin zabaldu ditu ateak Gatzagako KZgune berriak. 22 lagunek eman dute izena ikastaroetan parte hartzeko. Joan den astean, hilaren 7an, hasi zen lehenengo taldea Interneten gaineko eskolak hartzen. Izena eman gura duenak badu aukera.

Dagoeneko hasi da lehenengo taldea Interneten gaineko eskolak hartzen. Garro jauregiko azkeneko solairuan, Udal Liburutegian, sei ordenagailu jarri dituzte. Ibai Idiakez debarra hasi da KZgune berriaren eskolak ematen. "Arrasateko KZgunean bi lagun ari dira lanean. Gatzagan KZgunea prestatzen eta ikastaroetan parte hartu gura duten herritarren izenak hartzen Arrasateko kide bat ibili zen. Ni KZgune batek bestera ibiltzen naiz, normalean. Orain, berriz, hemen, Gatzagan jardutea egokitu zait. Ni neu hasi nintzen eskolak ematen joan den astean, eta seguruenik nik

emango ditut eskola guztiak. Gustura nago!", esan digu Ibaik. "22 lagunek eman dute izena eta, bost naka, denek egingo dute Interneten gaineko ikastaroa", jarraitu du Ibaik.

BI ASTEKO IKASTAROA


Bi aste iraungo dute ikastaroek. Goizez eta arratsaldean eman gura dituzte eskolak Ibaik. "Lehenengo taldea goizez hasi da, baina herritarrek eskatzen dutenen arabera ahaleginduko gara eskaintza egokitzen".

Maite Etxeberria, Egutzkine Alberdi, Gurutze Orbegozo, Aina Zubillaga eta Jon Sasiain izan dira ikastaroa egiten lehenak.

"Gehiago jakin gura dugunez, hementxe gaude. Aukera hau aprobetxatu egin behar dugu"

Eguzkinek eta Gurutzek Mendi- neteko autobusean izan zuten lehenengo harremana ordenagailuekin. Maitek, berriz, esan digu senarraren izena ematera joan zela eta berak ere ikastaroa egitea erabaki zuela; "Ordenagailuarekin moldatzen naiz, baina etxean ez dut ia erabiltzen. Orain, behintzat, hemen banabil e-mail batzuk bidaltzen", esan digu Maitek. Ainarak eta Jonek badakite zertxobait, baina gehiago jakin gura dute: "Eta hementxe gaude. Aukera ezin hobea dugu, eta aprobetxatu egin behar da", esan digute.

Izena eman duten lagunek 15 eguneko ikastaroa egin eta gero, ordenagailuetan ibiltzeko aukera izaten jarraituko dute. Izan ere, KZguneako arduradunek hiru ordenagailu bertan utziko dituzte. "Ikastaroak amaitu eta gero, egunean lau orduz egongo da zabalik KZgunea. 14 urtetik gorako edozein herritarrek izango du hona etorri eta lan bat egin edo nabigatzeko aukera", esan digu Ibai Idiakez.



AINTZANE GARDOKI

Bost lagunek osatutako lehenengo taldeak egin du ikastaroa.



Gatzagako Gatz Museoa ETBko 'Bertatik Bertara'-n

Astelehenean, hilak 12, Euskal Telebistako *Bertatik Bertara* saioak Gatzagako Gatz Museoaren gaineko erreportajea eskaini zuen. Astelehen goizean bertan egin zituzten grabaketa lanak. Itxaro Zubillaga saioko kazetari aretxabaletarra izan zen Aitziber Gorosabelekin berriketan. Ordu eta erdi luzez ibili ziren telebistako langileak museoeko inguruak eta Aitziberren jarduna grabatzen. Estixu Fernandezek eskutik, estudioan zeudenek Gatzagako gatzak dasatzeko aukera izan zuten.

LABUR

Saharar herriari laguntza eman guran herritarrek

Debagoieneko hainbat udalak bat egin dute saharar herriaren aldeko *Gosez hila nahi gaituzte* kanpainarekin. Gatzagako Udalak ez du zuzenean parte hartuko, baina Gatzagako lau lagunek oinarritzko elikagaiak eraman dituzte Arrasateko udaletxera: 50 kilo azukre, 15 kilo pasta eta lekale eta beste 5 kilo kakao. Lau herritarrok due la bi urte Tindoufeko kanpamenduetan egon ziren, Saharar Emakumeek antolatutako zuten kongresuan.

LENIZ, C.B. KONPONKETAK

LENIZ
ESKORIATZA

TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA

SUZUKI

Aingeru Ibiltokia z/g. • Tel.: 943 71 50 61 • Eskoriatza

ALZA

- Sukaldeko Bateriak
- Lapiko Lasterrak
- Zartakin eta Paeilaontzi itsasgaitzak

Aingeru Ibiltoki 3
Tel.: 943 71 41 31 Eskoriatza 20540

AZKOAGA

ESTANKOA

943 71 48 77

Zure
Zerbitzura

JOSE LUIS AMERIGO/NOTARIOA

“NOTARIOTZA BERRIA ZERRAJERAN DAGO, ZERBITZU HOBEA ESKAINTZEKO”

Urte berriarekin Arrasateko notariotza berria estreinatu du. Urte askoan Iturriotzen egon eta gero, hemendik aurrera mondragoetarrek Zerrajerako etxeetara joan beharko dute. Egoitza berriaren gainean berba egiteko Jose Luis Amerigorekin izan gara, Mondragoeko notariotako batekin.

Zer dela-eta aldatu duzue lekuz notariotza?


Azken urteotan hiru notario gabiltza Arrasaten, eta Iturriotzen geneukan egoitza txiki geratu zitzaigun. Arrasate gero eta herri handiagoa da, biztanle asko ditu, eta enpresan garrantzi handia dauka notariotzak. Lehengo notariotzak ez zituen arrasatearren beharrak behar den moduan asetzen, eta horregatik etorri gara Zerrajerara.

Urte asko egin ditu Arrasateko notariotzak Iturriotzen.

Bai. Gerraren ostean hasi zen orduko notarioa Iturriotzen lanean, 1940an, gutxi gorabehera. Iturriotzeko notariotza Arrasateren hazkundearen testigu izan da. Gainera, jakina da On Jose Maria Arizmendiarrarekin batera orduko notarioak, Jose Maria Marko Garmendiak, lan handia egin zuela. Lagun handiak ziren eta lan handia egin zuten; horregatik guztiagatik egoitza zaharrak garrantzi handia dauka.

Notariotza berria jartzerako orduan, zer izan duzue kontuan?

Egoitza zaharra herriaren erdian zegoen, eta argi geneukan berriak ere erdialdean egon behar zuela. Horrez gain, lokal berriak lehengoak ez zituen erosotasunik izan behar zituen. Oraingok sarrera oso erraza dauka: eskailera barik, gutxitu fisikoendako eta jende nagusiarendako traba barik... Badirudi notariotza etxabe baten jartzea gaizki ikusita dagoela, gehienak goiko solairuetan egoten dira-eta. Guk, berriz,



XABIER URZELAI

argi ikusi dugu notariotza etxabeen jartzeak erraztasunak baino ez dituela; askoz erosoagoa da.

Aukeratutako lekuarekin gustura zaudete, hortaz.

Bai, oso gustura. Arrasateren erdialdean dago eta eraikin berria eta modernoa da. Horrez gainera, aparkalekuak ondo-ondoan daude eta lehengo baina lokal handiagoa da. Horrekin batera, punta-puntako teknologiarekin hornitu dugu notariotza, Arrasateko herritarrei, elkarteei eta enpresei ahalik eta zerbitzu one-
na emateko.

Lokal handiagoa izatea, orduan, ez zen zuen ardura bakarra.

Ez. Iturriotzen ezin genuen teknologia berrietan inbertitu, leku aldetik mugatuta geunden-eta. Orain, berriz, ordenagailu gehiago, Internet, bideokonferentziak emateko aukera... Komunikabideak hobetu behar genituela ikusi genuen, eta egoitza berriak hori guztiori egiteko aukera eman digu. Hori bai, jendeak jakin dezala ez ditugula telefono zenbakiak aldatu, lehengoak ditugu: 943 79 13 58 eta 943 79 63 35.

Ikusten da inbertsio handia egin duzuela.

Egia esan, bai. Azken baten, gure ogibidea da, baina zerbitzu bat ere eskaintzen dugu, eta zerbitzu hori ahalik eta ondoen eskaintzea da gure asmoa. Herri-
tarrek eta enpresek hori kontuan hartzea gurako genuke.

Norekin egiten duzue lan handien, enprekin ala herritarrekin?

Bada, ezin dut zehatz-mehatz esan, baina gutxi gorabehera erdi eta erdi dela esango nuke. Izan ere, argi dago enpresan kooperatibekin lan handia egiten dugula, eta herritarren artean ere, asko eta asko kooperatibean dabilta lanean. Horrek esan gura du gure lanaren %80k kooperatibekin harreman zuzena daukala.

“Lokal berriak sarbide erraza dauka, leku onean dago eta handiagoa da”

“Enpresei eta herritarrei zerbitzu hobea emateko asmoz egin dugu”

“Lekuz aldatu bagara ere, lehengo telefono zenbaki berak ditugu”

ARRASATEKO NOTARIOTZA

Zerrajera 2 behea

Tel.: 943 79 13 58 / 943 79 63 35

Faxa: 943 79 01 73

notmon21@euskalnet.net



Edertasun Gida

'Egun produktu askoz gehiago dauden arren, jendeak lehen baino gutxiago zaintzen du ilea'

Duela 14 urte zabaldu zuen Maite Perezek Tximak ile apaindegia, baina berak 25 urte daramatza orrazten. Ordutik hona gauzak aldatu egin direla dio, baina aitortzen du orrazkera asko bueltan datozela berriro.

ILEA ZAINDU EGIN BEHAR DA

Egun duela 25 urte baino produktu gehiago daude ilea zaintzeko, baina jendeak ez dituela produktuak ondo erabiltzen dio Maitek. "Ilea zaintzeko produktu gehiago daude orain lehen baino, baina hala ere, jendeak lehen baino gutxiago zaintzen du ilea. Lehen, beharra zegoenean bakarrik joaten zen jendea ile apaindegira, baina etxean gehiago zaintzen zuten. Orain sarriagotan joaten da, baina itxurari garrantzi handiagoa ematen zaiolako". Horretan bat dator Sandra Pazos, Maite-ren lankidea. "Jendeak ile apaintzailei eskatu behar digu aholkua ilea zaintzeko. Askotan ilea ezagutu gabe erosten ditu produktuak eta gero honek kalte gehiago eragiten die onura baino. Guk hemen ikusten dugu nork zaintzen duen ilea, eta nork ez". Nork bere ilea ezagutu behar duela diote, eta produktu egokiak erabili. Horixe da ilea ondo zaintzeko aholkua.

KOLOREA ORRAZKERAREN GAINETIK

Hirietan herrietan baino orrazkera ausartagoak ikusten direla diote. Hemen, aldiz, orrazkerari baino koloreari garrantzi handiagoa ematen zaiola azpi-



marratzen dute Maitek eta Sandrak. "Orrazkera informala, egunerokoa nahi izaten du jendeak. Ilea desfilatuta eta batez ere, punta asko. Eta kolorea aldatzea. Koloreari garrantzi handiagoa ematen diote orrazkerari berari baino". Ondo zainduz gero, koloreak ez duela ilea izorratzen diote: "Ile apaintzaileok askotan aldatzen dugu kolorez, baina ondo zaintzen dugu, hori da sekretua. Gainera, ilea aurpegiaren markoa da, apaindura, eta ondo zaindu behar da", gaineratu du Maitek.

Era guztietako bezeroak joaten zaizkie Tximak ile apaindegira. "Normalean 30 eta 50 urte bitarteko emakumezkoak dira kolorea sarritan ematen dutenak, baina gero eta mutil gehiago dira horretara datozenak", dio Sandrak.

ORRAZTU BAKARRIK EZ

Jendea gero eta gehiago joaten da ile apaindegira, gaur egun itxurak garrantzi handia dauka-eta. Horregatik, ile apaindegi gehienek edertasun gela bat ere badute, baita Tximak-ek ere. "Egia esan, ez da oso handia, hemen toki askorik ere ez dago-eta, baina balio digu", dio Sandrak. Edertasun gela honetan makilatu egiten dute, adibidez, baina ez hori bakarrik. "Batez ere ezkongaiak makilatzen ditugu, baina horrez gain, betileetan permanentea egin edo hauek tindatzen ditugu. Argizariarekin ere egiten dugu lan", zehazten du Sandrak.

"Azken finean, jendearen beharretara egokitu dugu negozioa", dio Maitek.

Ilea zaindu egin behar dela azpimarratu nahi dute Maite eta Sandrak.

Ile honetan:

tximak

Irudi
Ile apaindegia
Errekabarren 20 Aretxabaleta
Tel.: 943 79 80 90

L-10
ILE APAINDEGIA
ESTETIKA
SOLARIUMA
LORAMENDI, 10
TEL: 943 77 01 26
20550 ARETXABALETA

**ILE APAINDEGI MIXTOA
ETA ESTETIKA**
Herriko Plaza 5, behea Tel: 79 83 64
ARETXABALETA

Gemes
estetika
Laser bidezko depilazioa
Makillajea
Ilargi plaza 1, Aretxabaleta. Tel. 943 79 99 18.

KiXKur
ILE APAINDEGIA
Solarium bertikala
Ile-luzatzeak
Estetika zerbitzuak
Loramendi 11, ARETXABALETA
Tel.: 943 79 90 79.

MAITE
ILE APAINDEGIA
Sarasate 1 behea
Tel. 943 79 59 05
ARETXABALETA

Edertasun Gidan parte hartzeko, deitu 943 79 86 21 telefonora